PORRONTX

JAIAK 1996

IRAILAK 11, 12, 13, 14, 15.

EGIA

Agurra

Berriro ere irailean gaude eta ondorioz guregana datoz aurtengo Porrontxo Jaiak 96. Jadanik 15 urte bete ditugu, eta espero dugu gutxienez beste horrenbeste betetzea.

Badakigu Egia ez dela auzo ikusgarria; ez du monumenturik, ez su artifizialik, ezta piszina olimpikorik ere, baina bertan jende mundiala, atsegina eta dibertigarria edonon ikusi eta topa ditzakegu. Hain zuzen ere bere auzoari eta bere auzoko jaiei hain atxekita bizi den jende honen lanari esker burutzen bait ditugu mundu osoan ezagunak diren jai arrakastatsu hauek: PORRONTXO JAIAK.

Baina guzti hau lortzeko koadrilen arteko elkarlana eta partaidetza ezinbestekoa dugu, jaiak ez baitira egun batetik bestera antolatzen.

Azkenik, eta 15 urte betetzen ditugun honetan,egiatarrok gure auzoa jaigune erraldoi bat bilakatzea espero dugularik,eta gure artean egoterik ez duten auzokide horiek aldez aurretik oroituz eta agurtuz, badakizue: haur, gazte, heldu nahiz aiton-amona, blusa hartu, kalera atera eta jaiak ondo igaro ! !

ONDO IZAN!!

AIZU ¡ JAIAK ONDO PASA !

ALKOHOLAK ETA TABAKOAK EZ ZAITZATELA BEREGANATU

BERE ERABILPENA ZURE ESKU DAGO

"PORRONTXO JAIAK" ABESTIA

Neska mutilak haurrak
eta helduak
danok pozez
kuadriletan
gora Porrontxo, aupa
atorrantiak
gozatu gure jaietan

Urtero ospatzen ditugu
jai zoragarriak
gure lanaz auzora
pozez erakutsiak
kuadrila guztien artean
erabakiak
horregatik diogu direla
guriak

Giro herrikoia dago
gaur gure auzoan
amnistiaren ametsa
beti dugu buruan
ikurrina jarrita dago
gure etxean
danok pozez salto ta
dantza kalean

ARRANO

Egiatarrak!
Ondo pasa
Porrontxo jaietan!

ELKARTEA

Aupa Egiatarrok! !

Aurten ere hemen gaude, blusak jantzita, pronto, gure Porrontxo aietaz harro-harro, ekarri duten eta ekarriko duten lanaz harro, baina an hori guztion artean egitea beti hobe izango dela ziur. Begira. Begi-a ezazu zure etxea eta ez zaitez izan galtzaundia: ez al litzateke askoz obe guztiok sortzen dugun zikinkeriaren, jaten ditugun jakien, egin behar ditugun erosketen eta gainerako lanen aurrean elkartzea, lan hauek ere guztion artean banatzea. Etxeko andrearen irudia ezabatuko lugu horrela eta Mari Jaiak hartuko du haren lekua.

Eta zuk, neska, kontuan izan jaia zurea ere badela, zuk ere egi-en duzula jaia eta gozatzen duzula jaiarekin. Eta gauez zein egunez biltzen bazara, askoz hobe. Tira, beraz, atera kalera!

Zuek, berriz, ez iezaizuela horretarako eragozpenik jarri. Ezetz! Arriskua ez dagoela kalean, baizik eta "erdiko hanka" horrekin pent-atzen duten horiengan. Aurrera! etxean geldituta ez ditugu erasoak kidingo, eta ez dugu jairik izango. Nazkaturik gaude etxezuloaz eta Ikolaren aitzakiez!

Jantzi ezazu blusa eta aide kalera!

Onenak diren jai hauek are hobeak izan daitezkelako, ondo asau eta aurrera.

LARUNBATA, 7

11,00 - Merkatu Txikia. Plaza Haundin.
14,30 - Bazkaria Plaza Berrin.
Koadrila bakoitzak bere bazkaria eramango du.
16,00 - Mus eta Partxis txapelketa azkarrak eta Porrontxanpon jokoa.
19,30 - Koadrilen kalejira auzoan zehar.
20,30 - Plaza Berrin Artzai Onaren Emparantzara kalejiraren irteera.
Egun guztian zehar ALKORTA ANAI ARREBA eta INTXAURRONDOKO TRIKITIXA ESKOLAKO Trikitilariak auzoa alaituz ibiliko dira.

ASTEAZKENA, 11

19,00 - Buruhaundi eta Erraldoiok TIRRI-TARRA txarangarekin.
20,00 - Suziri eta Porrontxoen jeitsierarekin Jaien hasiera.
20,00 - Koadrilen jeitsiera TIRRI-TARRA eta TAPUNTO txarangekin Karmengo Ama kalean zehar.
22,00 - Trikitixa ETZAKIT taldearekin.
Soka saltoa atsedenaldi batean.
23,30 - Karaoke jokoa, txoznen gunean.
23,30 - JATORRENAK txaranga
00,30 - Banana Dantza jokoa, Plaza Haundin.

OSTEGUNA, 12

12,30 - ORERETAKO Dultzainariak.
18,00 - Buruhaundi eta Erraldoiak IZENGABEAK txarangarekin Karmengo Ama kalean zehar.
18,30 - Haur jeitsiera IZENGABEAK txarangarekin Karmengo Ama kalean zehar.
19,30 - KANTAURI txaranga.
19,31 - Plaza Berrin haurrentzako Dantzaldia AZKONAK taldearekin.
19,30 - Portugaletik etorritako "RANCHO FOLKLORIKO DE ABITUTEIRAS" Dantza Taldearen emankizuna, Trebeskaren eskutik.
20,30 - Koadrilentzako jokoak: boleibol, futbolina eta gastronomi leihaketa Plaza Haundin.
22,00 - TAPUNTO txaranga.
22,01 - Dultzemeneoa IZOTZ taldearekin.
Soka saltoa atsedenaldi batean.

23,30 - ROKODROMOA, koadrilen parteideen eskalada erakustaldia txoznen gunean.

00,30 - Soka Tira jokoa Plaza Haundin.

OSTIRALA, 13

08,30 - Diana ORERETAko dultzainariekin.

12,00 - Haurrentzako ekitaldia BIHAR Ginol Taldearen eskutik Plaza Berrin.

12,30 - ALKORTA ANAI ARREBA trikitilariak auzoan zehar.

17,00 - Haur jokoak Plaza Haundin eta haurrentzako ROKODROMOA.

18,30 - Buruhaundi eta erraldoiak JATORRENAK txarangarekin.

19,30 - Kronoeskalada Karmengo Ama kalean gora.

21,00 - Auzoko taldeen kontzertua Plaza Berrin:
DENOK A-2, JEREDAY,...

22,30 - Antzerkia KASKETA KABARETA taldearekin.

23,30 - Dantzaldia IRATXO taldearekin.

01,00 - MOZOLOAK txaranga.

04,00 - KANTAURI txaranga.

05,00 - Baratxuri zopa, Arranoko kalestuan.

LARUNBATA, 14

PRESO, ERREFUXIATU ETA DEPORTATUEN EGUNA

07,00 - Diana ORERETAko dultzainarekin.

10,00 - Gladys-enea parkean haurrentzako txokolatada eta haur jokoak AMALUR taldearekin.

10,00 - Bertako produktuen **AZOKA**, ardi gazta, ahuntz gazta, erreposteria, baserri ogia,barazkiak, mermelada biologikoa tolosako babarrunak, landareak, pateak, eztia, kandelak eta beste produktu asko izango direlarik Plaza Haundin,
INTXAURRONDOKO TRIKITIXA ESKOLAKO TRIKITILARIAK alaituta.

16,00 - Mus txapelketaren finala, Arrano Elkartean.

17,00 - MOZOLOAK txaranga

17,30 - Koadrilentzako jokoak: bote, toka, pin-pon, piszina,.....

19,30 - Txakurren trebakuntzan erakustaldia, ZARAUTZKO "AGILITY URDANETA" taldearen eskutikPlaza Haundin.

21,30 - **Koadrilen afaria TRIKI TAKE trikitilariekin**

22,30 - "Porrontxo" Txapelketa jokoa.
23,00 - Dantzaldia TRAKETS taldearekin.
24,00 - TAPUNTO txaranga.
24,00 - Amnistiaren aldeko kalejira.
01,30 - TRIKI TAKE trikitilariak txoznen gunean.
01,30 - Egiako Koadriletako jendez osatuta TTUNTTURROAK.
03,00 - JATORRENAK txaranga.
06,00 - Txokolatada.

TTUNTTURRO IGANDEA, 15

07,00 - Diana ORERETAKO dultzainariekin.
07,30 - Oilasko jatea Plaza Berrin.
08,00 - Bigarren Diana TXALAPARTArekin.
08,00 - Batelak Urumea ibaian.
08,30 - KANTAURI txaranga.
11,00 - Pilota txapelketako finala Plaza Haundiko frontoian.
12,00 - JOTAK ANDOSILLAKO JOTA ESKOLAREN eskutik.
13,00 - Sagardo dastaketa ARANTXA ETA ITZIAR TRIKITILARIEKIN.
14,30 - Bazkari herrikoia Plaza Haundin. ERROMERIA



17,00 - HERRI KIROLA JAIALDIA.
parte hartzaileak: Aizkolariak: ERNESTO EZPELETA "BIURRI" (Eibarrekoa) eta JOSE IGNAZIO FLORES (Ziordikoa). Harrijasotzaileak: JOSEBA SARASOLA (Asteasukoa) eta JOSETXO GOIKOETXEA (Iparraldekoa). Aizkora, Harri altsaketa, Trontzan, Txingak eta Korrikan arituko dira Giputxi eta Naparren arteko lehian.

19,00 - Herri Kirolak koadrilentzako **jokoa**.

19,30 - Sardinada XABIER SUKIA, EUSEBIO LASARTE ETA IBAI ESOAIN bertsolariekin.

20,00 - Jai aldia AMALUR taldearekin.

21,00 - MOZOLOAK txaranga.

22,00 - Egian zehar koadrilen kalejira

23,00 - Azken traka, Porrontxoaren erreketa eta Jaien amaiera.

EZ APARKATU ⊘ NO APARCAR

OHARRA: Auzokide kotxedunei laguntza eskatzen zaizue ondoren aipatzen diren egunetan eta lekuetan aparka ez dezazuen.

NOTA: Se solicita la colaboración de los vecinos-as propietarios de coches para que no aparquen en los días y lugares siguientes:

TEJERIAK: Ostirala arratsaldetik igande gaua arte (kuadrilen Afaria).
A partir del viernes a la tarde hasta el domingo a la noche (Cena de cuadrillas).

KARMENGO AMA ETA TEJERIAREN ARTEKO KALEA: (OSTOTSA TABERNA):
Larunbatean kuadrilen jolasak eta igandean Herri kirolak.
El sábado juegos de cuadrillas y el domingo Juegos rurales.

TEJERIA ETA KARMENGO AMAK: Ostirala arratsaldean bigarren lerroan Kronoeskalada. Viernes a la tarde en doble fila Cronoescalada.

Porrontxo Jaiak

1982
15.
URTEA
1996